

Amaiera eta hasiera

Miren Azkarate
Badiola

Data hauetan idaztea tokatu zait eta ez dut uste batere originala izango naizenik. 2018. urtea atzean utzi dugu eta jada sartu gara 2019an; bata bukatu dugun bezala hasi dugu bestea, eta ez, ez naiz janaz eta edanaz ari, espetxeetan eta erbestee-tan ditugun senide eta lagunak gogoan edukitzeaz baizik.

Egunotan, ez dakit zergatik baina be-reziki izaten ditugu presente gure arte-an, eta aurren ez da salbuespena izan, etxe askotan afari eta bazkaritarako aul-

ki huts bat izaten jarraitu dugulako as-kok eta askok.

Espetxeetara martxak egin ziren duela aste bat, baita Hatortxu Rock jaialdia bes-te behin ere sarrera guztiak salduta, herri desberdinetan elkartasun lasterketak, Olentzeroak, han eta hemen brindisak... Halaxe amaitu. Eta hasi, aldiz, urteroko zita batzuekin; Oiartzungo Etxeraten ber-tso saioa bihar edota datorren asteko Bil-bo eta Baionako manifestazioekin. Ea az-kenak diren! Beti entzun dudana esaldia errepikatuko dut aurtengoan ere, zoritxa-

rrer! Baina esan esango dut, badaezpada, ea aurtengoak azkenak diren benetan!

Bitartean, egunotan barruan daude-nen jateko “menu bereziak” kontatu diz-kigute lagunak edota Whatsapp bidez Kuban manga motxetan pasa dituzten Gabonen bideoak jaso ditugu.

2018an bazirudien errealitate hori al-datuko zitzaigula, baina 2019an sartu gara ezer aldatu ez dela. Beraz, benetako azkena iritsi arte zuen alde korrika, dan-tzan, mendi martxetan eta dena delakoa egiten jarraituko dugu. •

Gatibu

Antton Izagirre

Abenduak zubia egiten du bado-an zaharraren eta datorren be-riaren artean. Gure kulturaren ere, halakoa izan da abendua. Agudo joan dira hamar urteak, Laboak utzi gintuenetik. Taula gainean ezagutu genuenok, inoiz utzi ez gaituen sentipe-nak izan ditugu, bere aldentzea ez baita sekula erabatekoa izan. Urteotan gatibu izan gaitu.

Segur aski, ez gara batere originalak, Laboa ez dela garai jakin bati lotua di-rauen kantaria aitortzen dugunean. Be-launaldi arteko lotura eta haren kantae-raren hilezkortasuna bermatua daude, gure goresmenetik harago, egungo gaz-

teen musika aukeren artean Laboarenak ere tokia hartu duelako. Gazteek Laboa ezagutu eta bereganatu izanak belaunal-di berrien musika zaletasunekin erraza-go konektatzen laguntzen digulakoan nago.

Horrela, urteurrenaren harira Laboa-ren obra berrargitaratu izanak, hura berpizteak pozten gaituen moduan, erraz uler dezakegu Berri Txarrak talde-aren agurraren iragarpenak, jarraitzaile askorengan sortu duen etsipena. Gure etxeko gazteenak «pena» eta «tristura» aipatu ditu bere bihotzeko taldearen iragarpenera ezagutzean. Azken kontzer-turako sarrera hartu du.

«Beti geratuko zaigu Gatibu», bota diot, samina apaldu eta aukera berriak eskura jarriaz. Ez dakit ulertu duen kei-nua.

Zorionez, kateak ez du etenik, batzuk joan eta besteak geratu egingo dira. Errenkada luzeak ikusi ditugu Alex Sar-duiren eskaintza jaso zain Durangoko Azokan. Haren gerri-dantzak eta kantae-ra bereziak jarraitzaile eta miresle gazte eta ez hain gazteak elkartuko gaitu eta aurrera jarraitzera deitu: «Europa zaha-rreko azken indioak, txikiak gara bihotz handikoak, luzaro iraungo ahal dugu? edo desagertu? Ez, ez! Altxau gaitez, go-azen!». •